

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Unibertsoan inoiz neurtu den leherketarik bortitzena

AEBETAKO FERMI TELESKOPIOAK fotoi batzuk detektatu berri ditu, inoiz antzemandako potentzia handieneko gamma-izpietatik eratorritakoak izan daitezkeenak.

Supernovak izarren leherketen ondorioz sortzen diren objektu distiratsuak dira, eta astronomoek eta bestelako zientzialariek aspaldidanik aztertzen dituzte. Oraingo leherketa honek, berriz, 8.000 supernova arruntek sortutako energia gainditu du, eta ia argiaren abiadura jaulki du materia. Argiaren abiaduraren %99,9999an, zehatzago esateko. Leherketa 12.200 milioi argi-urtera gertatu da, edo hobeto esanda gertatu zen, Carène konstelazioan, eta GRB 080916C kodeaz izendatu dute.

*Science* aldizkarian argitara emandako artikuluan esaten dutenez, gamma-izpi guztiak ez ziren une berean heldu. Horren arrazoa izan daiteke leherketa ez zela une berean gertatu eremu osoan, baina hori frogatzeke dago.

Izar leherketak oso garrantzitsuak dira ikerlarientzat, batez ere askatzen diren partikula mota batzuk ezezagunak izan daitezkeelako.



Unibertsoa gazte zela gertatu zen leherketa ikaragarria.

## Zirkuitu elektronikoak inprimagailu bidez

JOGURT BATEN tenperatura monitorizatu ahal izateko sistema elektronikoak oso sinplea izan behar du, bestela yogurtaren prezioa ez da batere lehiakorra izango.

Telebisten eboluzioari begiratuz, metro erdiko sakonerako monitorea desagertu dira, eta une honetan zentimetro gutxi batzuetako sakonera duten monitorea baino ez dira egiten. Horretarako, zirkuitu inprimatuak geruza mehetan kokatzen dira, baina hala ere geruza bakoitzean material asko geratzen da erabiltezin. Nola optimizatu sistema?

Erlangen-eko (Alemania) Fraunhofer Teknologia Institutuko ikerlariek garatu duten teknologiarekin, edozein bulegotan dauden tintazko inprimagailuetan zirkuitu elektronikoak inprimatu daitezke. Sekretua, noski, tintan dago. Ez dute esan zeintzuk diren haren ezaugarriak, baina nano-partikulez osaturik dagoela adierazi dute.

## Biziaren jatorria ulertzetik atzo baino hurbilago gaude

Montrealgo (Kanada) Unibertsitateko ikerlari batzuek erribosomen sorrera azaltzen duen teoria garatu dute. Erribosomak kode genetikoak irakurri eta interpretatzen duten molekulak direnez, beraien egitura ulertzeak argitze bidean jar dezake biziaren misterioa. <http://ttiki.com/2359>

## Erradikal oxidatzaileak zahartzaroaren errudun?

Gure gizartean oso modan daude antioxidatzaileak dituzten produktuak, gure zahartzaroa ez ezik hainbat minbizi mota atzeratzen omen dutelako. Kanadako ikerlari talde baten arabera ordea, zalantzakoa da zahartzea erradikal aske oxidatzaileen eraginez gertatzea. <http://ttiki.com/2360>

## Nola mugitzen dira birusak?

Birusen higitzeko era ezagutzeko bidean urrats bat egin dugu, atomo gutxi batzuk dituzten egiturak aztertuz. Automobil baten eskalara eramanda, birus batzuen motorrek bi motor arrunten potentzia bikoitza izango lukete. Aurkikuntza oso erabilgarria suertatu liteke aplikazio mediko ugaritan. [www.amazings.com/ciencia/noticias/200209e.html](http://www.amazings.com/ciencia/noticias/200209e.html)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza   
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16